2018 / 12 / 14
2019 / 01 / 06

BILBOKO 36.ARTISAUTZA AZOKA

Artisau agurgarriak

Bilboko Gabonetako 36. Artisautza Azokaren 6. edizioa izango da aurtengoa GABONART markaren pean. Esan behar da komertzializazioa egonkortu egin dela Gabon sasoian Bilbon, eta horrela azaltzen da artisautza sektorearen zein publikoaren aurrean.

Aurten, Gabonart sendotu egingo da Bilboko Udalaren parte hartzearekin, Gabonetako diseinu berria izango du-eta gure uriak . Izan ere, Areatzako kaia jai gune ludiko bilakatuko dute familiaren aisialdiari zuzendua, eta era berean, hurbileko turismoa eta gure merkataritzaren sustatze ekonomikoa indartzeari begira.

Ezin duzu galdu!!!

GABONART abenduaren 14tik urtarrilaren 6era egingo da Bilbon.

Lekua: Areatzako Kaia - Bilbao
Ordutegia: 11:00etik 14:30era. 17:00etik 21:00era.
Egunak: **24, 31** eta **6** 11:00etik 15:00era.
Egunak: Abenduak **25** eta urtarrilak **1** ITXITA

Informazio orokorra, zein parte hartzeko inprimakiak, GABONART web-ean aurki ditzazkezu, helbide honetan:
http://gabonart.blogspot.com

Interesdunek ESKABIDE-ORRIA eta gainontzeko agiri osagarriak, datuak argi eta garbi idatzirik, hauetako helbide batera bidali behar dituzte:

E-mail: artisautza@arbaso.com
Correo postal: GABONART - 306 posta-kutxa 48200 Durango (Bizkaia)

Arreta-ordutegia argitaratzen dut: 9:00etik 13:00era (Tel.: **946218196**)

Izena emateko azken eguna uztailaren 9a izango da

Jakinarazpen hau martxoaren 13ko 35/2018 Foru Dekretua betez bidaltzen dizuegu.

Parte-hartze arau orokorrak

1. Ezinbesteko baldintza izango da erakus eta saltzen diren gai guztiak artisau berak egin eta ekoiztutakoak izatea.
   Egokitutako stand-ean artisau bakoitzak bere ekoizpenak soilik azaldu ahal izango ditu. Ez da produkturik onartuko artisauak berak egindakoa ez bada. Ez da onartuko stand bateko arduradun izatea identifikatu barik dagoen inor, edota aldez aurretik, antolatzaileei jakinarazi gabeko inor.
2. Documentazioa:
   - Eskaera-orria ondo beteta; era telematikoan egin daiteke ondoko helbideetatik
     http://gabonart.blogspot.com.es/p/solicitudes.html
   - Dagokion eskualdeko eskulangile-erroldan izena emanda egotearen egiaztagiri **eguneratua** erantsi beharko zaio eskabide-orriari edo artisau txartela.
   - Osasun erregistroa (kosmetika gremioarentzat)
   - Autonomoetako azken 3 ordainagirien fotokopia, eta EJZ.
   - Konpromiso eta Pribatutasun eskutitza sinatutako.
   - Erantzukizun zibileko asegurua
   - Kurrikulum profesional labur bat.
   - Aurkeztu beharreko produktuen zerrenda, prezioak.
   - Erabilitako teknikak eta lehengaiak.
   - 5 argazki (bi saltzen diren objetuenak eta bestea stand-arenak). (Hobeto formatu digitalean .JPG ó .TIF)
     *(EZ dira argazkien fotokopiarik onartuko.
     *** Ez dira tramitatuko guztiz bete barik dauden eskaerak.**

3. Posta arruntaren bidez jaso izan dugun dokumentazioa ez zaie bide beretik itzuliko azokan parte hartzeko hautatuak izan ez diren artisau-enpresei.

   Aipaturiko dokumentazioa antolatzaileen esku geratuko da, eta Datuak babesteko Legeak ezartzen duena betez, suntsitu egingo da.
4. Erakusketariei uztailaren 23an jakinaraziko zaie Antolakuntza Batzordearen ebazpena.
   - Parte hartzaile bakoitzari dagokion lekunea ezin izango da aldatu ezta gainditu ere, antolatzaileen idatzizko baimena izan ezean.
   - Onartutako tailerrak Gabon artaren web gunean jarriko ditugu.
   - Antolatzaileek erreserbatuta utzi ditzakete zenbait eskaera eta aztertu egingo luke horien parte hartzea, onartutako erakusketarietatik baten batek araudia edo standa ordaintzeko epea beteko ez balitz.
5. Orri informatiboak direnez, orri hauek jasotzeak ez du azokan parte harteko eskubiderik ematen. Etortzeko baliodun titulu bakarra ONARPEN ESKUTITZA izango da, aukeratutako artisauei soilik emango zaiena.
6. Azokan parte hartzeko gremio bateko eskari larregi badago, eta beste gremio batzuetan lekua soberan, antolatzaileek gremio hartako artisauen parte hartzea % 20ra mugatuko dute.
7. Bitxigintza edo bisuteriakoak ez diren standek, bisuterian, gehienez, % 20 izan ahalko dute erakusgai.
8. Azokan parte hartzeko onarpena jaso eta egun gutxira, 500 euroko lehen ordainketa-agindua bidaliko dugu standa erreserbatzeko fidantza moduan. Artisauak standari uko egiten badio, fidantza ez zaio inolaz ere itzuliko.
9. Parte hartzen duten enpresei honakoak baloratuko zaizkie
   - Azokan parte hartuko duten artisau-enpresetako % 50a Bizkaikoak izatea
   - Enpresa eskatzailea Arbasoko bazkide izatea
   - Produktuen kalitatea eta erakusteko duten itxura.
   - Standean, jendaurrean, titularra bera egotea.
   - Azoka orduetan, nork bere lanbidearen lanak egitea.
   - Aurreko edizioetako parte hartzea ebaluatzea.
10. Foku gehigarriak ipini behar badira, kontsumo txikikoak izan beharko dira, eta aldez aurretik eskatu behar zaizkie antolatzaileei, muntaiaren eskema eta kontsumoa zehaztuta. Araututa dagoen legez, ezin dira erabili berotzen diren bonbillak.Oinarriotan ageri ez den edozein gertakizunen aurrean, Azoka Antolatzaileak, Azokaren burutze onerako egokiagoa deritzona erabakiko du.
11. Oinarriotan ageri ez den edozein gertakizunen aurrean, Azoka Antolatzaileak, Azokaren burutze onerako egokiagoa deritzona erabakiko du.
12. Azokaren antolatzaileak ez dira Azoka egiten den aldian gerta daitezkeen lapurreta eta galereen kargu egingo.
13. Antolakuntzaren esku egongo da:
   - Artisauren bat azokan ez onartzea, baldin eta baldintza administratiboak edo kalitatezkoak betetzen ez baditu.
   - Jarraipen bisita egingo zaie onartutako tailer guztiei eta parte hartzeko eskaria egin dutenei.
   - Ez dira tramitatuko guztiz bete barik dauden eskaerak.
   - Antolakuntzak, stand batean irregulartasunik aurkituz gero, besterik gabe azokatik kanpo hutziko du artisaua. Horrela gertatuz gero kalte ordainak jasotzeko eskubidea galduko luke.
14. Artisauak stand-a oinarrietan ezarritako epearen barruan betetzen ez badu honen erabilera antolatzaileen esku geratuko da. Kasu honetan artisauak inongo indemnizazio edo ordainketa jasotzeko eskubiderik ez du izango. Honetaz gain, bere ustetan arduretan huts egiten duen artisauak, irekitzeko/izteko ordutegiak, garbitasun arauak ez errespetatzea edota beste edozein arauren huts egitea dela eta), Azoka honetako ondorengo edizioetatik kanpo uztea antolatzaileen esku geratuko da.
15. 4 metroko standak jartzeko aukera badago ere, espazioa zein den ikusi ondoren erabakiko da.
16. Debekatuta dago :
   - Argazkiak ateratzea artisau-erakusketariei eta produktuei, baldin eta antolatzaileek edota artisauak berak ez badu baimena eman.
   - Azoka esparruan bizikletak eta txakurrak sartzea (itsu-txakurrak sartu daitezke).

Standen ezaugarriak

- Stand modulsrrak: aurrealdea 3 eta 4 metrokoak, sakonera 2 metrokoa eta altuera 2,80 metrokoa.
- Serieko argiztapena: kontsumo txikikoak foku LED , 10 W 2m2 bakoitzeko eta 500 W-ko muga-gailudun entxufea.
- Standetako hormetan gauzak eskegitzeko sistema: barra paraleloak jartzen dira horman, bertan, oihalak edo bestelako gauzak eskegitzeko, tresna diskretuak erabilita.
- Azoka-barrutian berogailua eta megafonia izango dira, barruan zein kanpoaldean.
- 5 metrokozabaleraz eta sabai zeharrargia.
- Gauez zainduta.

Prezioak

	Stand - 3*2 m.	**Stand - 4*2 m.**
Bizkaiko artisauek	900	1.200
Besteak artisauek	1.425	1.900

Standak apaintzeko lehiaketa

Gabonart dela eta, antolatzaileok erakusketarien katalogo bat egingo dugu. Bertan argitaratuko diren datuak izena emateko fitxatik aterako ditugu, beraz, ez da izango gure erantzukizuna akatsik edo hutsik badago.

Oharra

Artisau-erakusketariren batek erakustaldi berezia egin edo ume edota nagusientzako ekintza edota tailerra antolatzeko asmoa badu, proposamen- txostena eta aurrekontua bidali behar dizkie antolatzaileei, aztertzeko.